

2020IOPO0001

## **DIRUZAINZAKO ADMINISTRARI POSTUA BETETZEKO LEHIAKETAREN IZENDAPEN PROPOSAMENA**

2019ko abenduaren 20ko tokiko gobernu batzarrak, besteak beste, erabaki zuen diruzaintzako administrari lanpostua betetzeko lehiaketaren deialdiaren oinarriak onartzea, baita hautaketa-prozesuari dagokion deialdia egitea.

Lehiaketarako oinarriak, eta deialdia bera, udaleko web orrian argitaratu da eta 2020ko urtarrilaren 13ko GAOn.

91/2020 dekretu bidez ebatzi zen hautaketa-batzordeko kideak izendatzea, onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda onartzea, eta azken horren aurka alegazioa aurkezteko 10 eguneko epea ematea. Dekretua otsailaren 4an argitaratu zen udaletxeko iragarki-taulan eta webgunean, eta ez zirenez alegaziorik aurkeztu otsailaren 17ko 155/2002 Dekretuz zerrenda hori behin betiko bihurtu zen.

Hautaketa-batzordeak otsailaren 11n azterketa praktikoa inguruan hartutako erabakiari jarraikiz, otsailaren 17ko 155/2002 Dekretuan ebatzi zen onartutako izangaiei proba praktikoa egitea, martxoaren 10ean.

Hautaketa-batzordeka martxoaren 10eko 8:00etan egindako bileran onartu zuen azterketa, baita hori zuzentzeko gidoia eta atal bakoitzari emango zitzaion puntuazioa ere. Eta 14:00etan egindako bileran, berriz, azterketak zuzendu eta merituak baloratu ziren, partaide bakoitzari puntuazio hau emanaz:

	<b>Gehienezko puntuazioa</b>	<b>Laxxxixx Eixxxxxxx Zxxldxx xx.xxx.116 D</b>	<b>Bexxxxx Ibxxxxru Fxxxes xx.xxx.294 P</b>
Ian-esperientzia	20,00	20,000	20,000
Prestakuntza osagarria	7,50	0	1,800
Araututako prestakuntza	2,50	2,000	0
Azterketa	10,00	7,487	7,698
<b>Guztira</b>	<b>40,00</b>	<b>29,487</b>	<b>29,498</b>

Aipatu guztiagatik, ofizialorde lanpostua zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko lehiaketako hautaketa batzordeak,

### **ERABAKI DU**

**Lehena.**- Izendapen-proposamena egitea Bexxxxx Ibxxxxru Fxxxes-en alde, bera izan baita lehiaketa honetan puntuazioa handiena lortu duena, hain zuzen, 29,498 puntu..



**Bigarrena.**- Ebazpen proposamen hau argitaratzea Astigarragako Udaleko web orrian eta udal iragarki taulan, eta 10 egun balioduneko epea ematea lehiaketan parte hartu dutenek erreklamazioak aurkezteko.

Astigarragan, 2020ko apirilaren 20an.

Xabier Urdangarin Lasa  
hautaketa-batzordeko lehendakaria